



ARGENTINA



PROIEKTUA



"GAZTE ETA HELDUENTZAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA"

Udalerria: **SAN SALVADOR DE JUJUY**
Probintzia **JUJUY**

BIZTANLERIA

312.554



MUGAK

- Mendiak
- Xibi Xibi ibaia
- Rio Grande ibaia

AZALERA

19 km²



JUJUY - ARGENTINA

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektuak, batez ere, helduekin eta gazteekin garatzen ditu hezkuntza-jarduerak, La Salle Lanbide Formazio eta Gaikuntzarako Zentroarekin eta La Salle Gazte Gune Asoziazio Zibilarekin batera.

Informatikan, energia berriztagarrietan, familiako baratze organikoetan eta birziklatzean trebatzeko tailerren garapena bultzatzen da.

Gizarte-ekonomiako trebakuntza-tailerrak ere egiten dira, eta musika, marrazketa eta zeramikakoak ere. Topagune komunitarioak sortzen dira, eta horietan hainbat gizarte-arazo jorratzen dira, hala nola genero-indarkeria, osasun-zaintzak, elikadura eta haurren eta nerabeen eskubideen sustapena.

Komunitateko erakundeekin batera, hainbat ekintza gauzatzen dira, hala nola auzoan bakarrik bizi diren adinekoei laguntzea, haur eta nerabeei zuzendutako eskola-laguntzako jarduerak; jolas-irteraldietan ere laguntzen zaie, eta familien etxebizitzak konpontzen laguntzeko ekintzak sustatzen dira.

PROIEKTUAREN KOKAPENA

Proiektua Malvinas auzoan kokatuta dago, Jujuyko San Salvador Hiriazen hegoaldean, Jujuyko probintzian (Argentina).

San Salvador de Jujuyko auzo jendetsuenetako bat da; 2001eko erroldaren arabera, 12.873 biztanle zituen guztira 2.548 etxebizitzatan, eta probintzian 2019rako proiektatutako biztanleria 762 mila pertsona ingurukoa da. Adinaren araberako banaketak erakusten du % 8,8 lau urte artekoak direla (67 mila), 5 eta 19 urte bitartekoak % 26,4 (201 mila), 20 eta 59 urte bitartekoak % 52,2 (398 mila), eta 60 eta gehiagokoak % 12,5 (95 mila).

San Salvador de Jujuy Manuel Belgrano doktorearen departamentuko buruetako bat da, eta Jujuy probintziako hiriburua eta hiri jendetsuena. "Tacita de Plata" deritzona, haran emankor batean dago, Rio Grande eta Xibi Xibi ibaien elkartunean, mendebalderantz, neguan, elurrez estalita egon ohi diren mendiz inguratuta.

265. 249 biztanle ditu eta bere metropoli-eremukoak gehituz, 312.554 biztanle.

PARTAIDE KOPURUA

3-5 Pertsona



PARTE-HARTZE EREMUAK

1. Oporraldian, haur eta gazteentzako jolasak eta jardueratailerak antolatzea.
2. Gazte Gunearen jardueretan eta tailerretan parte hartzea.
3. Formazio Zentroan parte hartzea: informatika, elektrizitate, energia alternatibo, edertasun... ikastaldi laburretan.
4. Auzoko beste zenbait jardura eta taldeetan parte hartzea: Oinarri Eliz Komunitateak (CEBS), aitona-amonen jangela...
5. Adin txikiko atxilotuen zentroan parte hartzea.
6. Kaperako liturgian eta jardueretan parte hartzea.

BOLUNTARIOAREN PROFILA

Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntza edota Ikaskuntza Teknikoan hezitzaileak diren boluntarioak.

Osasunaren arloan profesionalak diren boluntarioak.

Erlijio edota katekesiko irakasleak.



BOLUNTARIOEN OSTATUA

Boluntarioak hartzen dituen hezkuntza-espazioak eskainiko dizkio elikagaiak eta Anaien Elkartearen etxean ostatu izatea erraztuko, boluntariotzak irauten duen bitartean, esperientzia komunitarioa partekatzeko. Horretarako, 3 logela eta bi bainugela prest dira Anaien elkartearen etxean, boluntarioei ostatu emateko. Boluntarioek jarduerak egingo dituzten lekutik 150 metrotan dago ostatua.







